# Estrategia País
# Cuba

En la actualidad, el 95% de los fondos que el Gobierno Vasco destina a cooperación al desarrollo tienen como destino 20 países, entre los que figura la República de Cuba. En cada uno de ellos la Dirección de Cooperación al Desarrollo se ha propuesto formular y desarrollar Estrategias País, con los siguientes objetivos:

La Estrategia País es una herramienta de planificación, formulada de manera participativa, que establece las prioridades de cooperación en un país concreto, para un determinado periodo de tiempo. Sus objetivos son:

1. Concentrar esfuerzos en líneas de actuación,
2. Facilitar el trabajo conjunto de las entidades vascas y locales en la búsqueda de sinergias y coordinación de actuaciones.
3. Coordinar los diferentes instrumentos de cooperación (programas, proyectos, convenios, Juventud Vasca Cooperante, Becas ONU, investigación, formación y asistencia técnica).

La Estrategia País se estructura:

1. Diagnóstico de coyuntura de desarrollo en cada país.
2. Retos del país en desarrollo humano sostenible.
3. Estructura de cooperación y capacidades de la cooperación para el desarrollo en el país.
4. Líneas de trabajo fundamental para la cooperación en los próximos años.

## Estrategia País Cuba:

La Dirección de Cooperación al Desarrollo del Gobierno Vasco se ha decantado por la República de Cuba para la primera Estrategia País por darse una serie de condiciones que fravorecían la formulación de una estrategia de cooperación de estas características:

1. Peso específico de la cooperación del Gobierno Vasco en Cuba (12 millones de euros desde 2000, 2 millones de euro cada años desde 2003).
2. Larga experiencia de cooperación con Cuba (desde 1992).
3. Número importante de entidades vascas que trabajan en Cuba (14 entre 2000 y 2004).
4. Riqueza y diversidad de las entidades que trabajan en Cuba (ONGD, Instituciones, Universidades, Empresas, Centros Tecnológicos).
5. Especialización sectorial en torno al Desarrollo Económico Local.

6. Experiencia previa en coordinación y planficación conjunta Euskadi-Cuba.

El objetivo general de la Estrategia País Cuba es el de acompañar los procesos de desarrollo humano del pueblo cubano mediante el fortalecimiento de líneas de trabajo estratégicas y generando iniciativas de desarrollo estructurales y de gran impacto. Pretende crear los espacios de concertación y coordinación necesarios entre agentes vascos y cubanos para generar sinergias y concentrar esfuerzos en aras a una mayor eficacia.

Se van a priorizar acciones para una mayor generación nacional de alimentos (soberanía alimentaria frente a dependencia de las importaciones de productos básicos) y para acompañar la reconversión de centrales azucareras en centros productores de alimentos o sedes de otras actividades industriales que generen nuevas oportunidades económicas para la población cubana.

Por supuesto, no se olvidarán otros sectores importantes, como la salud o la educación, ámbitos fundamentales de la estrategia de desarrollo del propio pueblo cubano.

Uno de los aspectos fundamentales de esta Estrategia País gira en torno a la coordinación de los diferentes instrumentos de cooperación , el fomento de herramientas como la evaluación, sistematización e investigación, y la planificación de estrategias concretas en aspectos como el desarrollo de las capacidades locales, la organización o la equidad de género.

En lo que a las acciones concretas se refiere, anotar que se priorizarán aquellas que ya estén en marcha y sean consideradas estratégicas por los agentes locales, y otras nuevas a desarrollar en las provincias orientales de la isla.

**En definitiva, el Gobierno Vasco pretende con la formulación de Estrategias País mejorar la coordinación entre las diferentes entidades vascas de cooperación que trabajan en un determinado país y entre estas y los agentes locales, para generar sinergias comunes de trabajo, concentrar esfuerzos en sectores estratégicos, aprovechar al máximo tanto los fondos como los instrumentos disponibles y dotarr de mayor eficacia y efectividad a la cooperación vasca.**

## Herrialderako Estrategia

# Kuba

Gaur egun, Eusko Jaurlaritzak garapen-lankidetzara bideratzen dituen funtsen %95k 20 herrialde dute jomuga. Herrialde horietako bat Kubako Errepublika dugu. Herrialde horietan guztietan Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzak Herrialderako Estrategiak aurkeztu eta garatu nahi ditu.

Herrialderako Estrategia antolatzeko tresna da eta modu parte-hartzailean jarduten du. Herrialde zehatz baterako lankidetza-lehentasunak zehazten ditu, denbora-tarte jakin baterako. Helburu hauek ditu:

4. Jarduera-ildo batzuen inguruan esfortzuak biltzea.
5. Euskadiko eta tokiko erakundeek lankidetza-bideak bilatzen eta jarduerak bateratzen egiten duten lanean laguntzea.
6. Lankidetza-tresnak koordinatzea, hala nola, programak, proiektuak, hitzarmenak Euskadiko Gazte Lankideak, NBEko bekak, ikerketa, prestakuntza eta laguntza teknikoa).

Herrialdeko Estrategia honela dago egituraturik:

5. Herrialdeen garapen-egoeraren diagnostikoa.
6. Herrialdeak giza garapen iraunkorraren arloan dituen erronkak.
7. Herria garatzeko lankidetzaren egitura eta ahalmenak.
8. Datozen urteotan lankidetzan aritzeko lan-ildoak.

### Kubaren Herrialderako Estrategia:

Eusko Jaurlaritzako Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza Kuba hautatu du lehenengo Herrialderako Estrategia gauzatzeko. Izan ere, badira zenbait gorabehera, garapenerako horrelako lankidetza-estrategia bat aurrera eramaten laguntzen dutenak:

7. Eusko Jaurlaritzaren lankidetzak Kuban duen pisua (12 milioi euro 2000tik, 2 milioi euro urtean 2003tik).
8. Kubarekiko urtetako lankidetza (1992tik).
9. Kuban lanean ari diren Euskadiko erakunde ugariak (14 2000tik 2004ra bitartean).
10. Kuban lanean ari diren erakundeen aberastasun eta aniztasuna (GGKE, instituzioak, unibertsitateak, enpresak, zentro teknologikoak).
11. Espezializazio sektoriala Tokiko Garapen Ekonomikoaren inguruan.
12. Euskadik eta Kubak elkarrekin koordinatu eta antolatzeko lehendik duten esperientzia.

Kubako giza garapenerako prozesuetan laguntzea da Kubaren Herrialderako Estrategiaren helburu nagusia. Horretarako, lan-ildo estrategikoak sendotu eta egitura-garapenerako ekimenak sortu behar dira, eragin handiko ekimenak hain zuzen ere. Adostasun eta koordinazio guneak eratzeko asmoa du, Euskadiko eta Kubako eragileek beharrezkoak dituztelako, lankidetza-bideak sortu eta ahaleginak batzeko, eraginkortasuna areagotu nahirik.

Elikagai-kopurua areagotzeko ekintzei lehentasuna emango zaie, elikagaietako subiranosuna lortu nahi delako, oinarrizko elikagaiak inportatu beharrik ez izateko. Gainera, beste ekintza hauek ere lehenetsiko dira: azukre-lantegiak bestelako elikagaien zentro ekoizle edo kubatarrei aukera ekonomiko berriak emango dizkieten beste jarduera industrial batzuen egoitza bihurtzekoak.

Ez dira ahaztuko, noski, beste sektore garrantzitsu batzuk, esaterako osasun eta hezkuntza, Kubako herriaren garapen-estrategiaren funtsezko eremuak baitira.

Herrialderako Estrategia horren oinarrizko alderdietako bat honako arlo hauekin lotuta dago: lankidetza-tresna batzuk koordinatzea, zenbait tresna sustatzea (ebaluazioa, sistematizazioa eta ikerketa) eta estrategia zehatzak antolatzea, hala nola toki-ahalmenen garapena, antolaketa eta genero-ekitatea.

Ekintza zehatzen harira, lehentasuna emango zaie gaur egun abian direnei, baldin eta toki-eragileek estrategikotzat jotzen baditu, bai eta uharteko ekialdeko probintzietan gauzatu behar diren beste ekintza batzuei ere.

**Beraz, Eusko Jaurlaritzak Herrialderako Estrategien bidez nahi du herri jakin batean lanean ari diren Euskadiko lankidetza-erakundeen arteko eta erakunde horien eta tokiko eragileen arteko koordinazioa hobetzea, lankidetza-bide berriak sortzeko, arlo estrategikoen inguruan esfortzuak biltzeko, eskuragarri diren funts eta tresnetatik ahalik eta etekin handiena ateratzeko eta euskal lankidetza eraginkorragoa izateko.**